BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2357

AGINDUA, 2013ko maiatzaren 16koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskadiko kirol-federazioen 2013ko kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia arautzen duena.

2000ko abenduaren 26ko 287/2000 Dekretuaren xedea kirol-federazioen finantza-bidea arautzea da, horiei beren urteroko kirol-programetarako diru-laguntza ez itzulgarriak emanez.

287/2000 Dekretu horretako 3. artikuluak xedatzen duenez, urtez urte egingo da Dekretuak arautzen dituen laguntzak jasotzeko deialdia, Kulturako sailburuaren agindu baten bidez, eta deialdi horietan gorabehera hauek zehaztuko dira: deitutako laguntzak finantzatzeko diru-zuzkidura, eskabideak aurkezteko epeak eta tokia, erakunde eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa, laguntzen zenbatekoa egiteko ponderazio-irizpideak, eta emandako laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu behar diren dokumentuak.

Beraz, 287/2000 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, agindu honen bitartez gorabehera horiek zehaztuko dira, 2013. urteari begira laguntza-deialdia aplikatu ahal izateko.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Euskal kirol-federazioen kirol-programetarako diru-laguntzak emateko modua arautzen duen 2000ko abenduaren 26ko 287/2000 Dekretuaren bidez araututako diru-laguntzetarako 2013ko deialdian parte hartu nahi duenak hilabeteko epea izango du eskabidea aurkezteko, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. artikulua.– Eskabideak aurkezteko lekua.

Agindu honetako diru-laguntzak jasotzeko eskabideak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari zuzenduko zaizkio (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Erregistro Orokor Zentralean edo erregistro osagarrietan aurkeztuko dira (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, EHAAren 2008ko maiatzaren 30eko 102 zenbakian argitaratua), zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako bideetatik edozein erabiliz.

3. artikulua.– Entitate eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Diru-laguntzak jasotzeko eskabideekin batera honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

a) Eskabide-inprimakia (I. eranskina), federazioaren legezko ordezkariaren NANaren kopiarekin eta ordezkari horrek duen boterearen kreditazioarekin batera.

b) Erakundearen 2013ko ekitaldiko aurrekontua, batzar nagusiak onartua, VI. eranskineko kontabilitate-ereduaren arabera.

c) Federazioaren Identifikazio Fiskalerako Zenbakiaren kopia.

d) Zerga eta Gizarte Segurantzako kontuetan bere betebehar guztiak ordainduta dituela egiaztatzen duten agiri eguneratuak.

e) Entitate onuradunak eskatu dituen edo ustez jasoko dituen beste laguntza batzuen ziurtagiria, tokian tokiko federazioaren idazkariak emana, laguntzok emango dituen erakunde publiko zein pribatuaren izena eta diru-laguntzarako eskabideen egoera aipatuta (ezetsiak, erantzunaren zain, emanak) eta diru-kopuruak. Horrelakorik egon ezean, diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako egitarauetarako beste inongo laguntzarik ez dela eskatu edo jaso egiaztatzeko jakinarazpena.

f) Kirol-egitasmoa azaltzen duen memoria (II. eranskina). Honako hauek agertuko dira bertan:

– Federazioak antolatutako kirol-lehiaketa ofizialak. Lehiaketen gutxi gorabeherako kopurua, espezialitate edo diziplinen eta kategorien arabera. Parte hartuko duten kirolari eta kluben kopurua eta parte hartuko duten kluben portzentajea adierazi beharko da, federazioan afiliatuta dauden klub guztien aldean.

– Kirol-prestakuntzako jarduerak. Egingo diren jardueren zerrenda eta partaideen eta orduen kopurua gutxi gorabehera.

– Zuzendari teknikorik dagoen eta horren titulazioa, dedikazioa ordutan eta federazioarekin duen lotura.

– Parte-hartzera bideratutako kirolen inguruan federazioak antolatutako jarduerak (jolas, aisia eta osasunerako kirola).

– Kirol-selekzioek burututako jarduerak.

– Kirol-mota bertokoa den.

– Emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak baztertzeko eta haien arteko berdintasuna sustatzeko federazioak bultzatzen dituen ekintzak.

g) Federazioen estamentu-liburua, Kirol Erakundeen Erregistroak legeztatua, eta Federazioaren idazkariak lehendakariaren oniritziarekin egindako egiaztagiria, 2012ko abenduaren 31n federazioak zituen kirolari federatuen kopurua adierazten duena (III. eranskina).

h) 2012ko abenduaren 31n federazioak afiliatuen artean zituen goi-mailako kirolarien zerrenda (Kirol Kontseilu Gorenak edo Eusko Jaurlaritzak onartuak).

i) Federazioak euskara zenbateraino erabiltzen duen adierazten duen memoria (IV. eranskina). Honako hauek aipatuko dira:

– Euskaraz emandako prestakuntza-ikastaroak.

– Euskararen erabilera federazioen dokumentu eta argitalpenetan.

– Euskarazko weborririk duen.

– Jendeari harrera euskaraz egiten zaion.

– Federazioaren kanpo-harremanetan euskara erabiltzen den.

– Federazioko kideekin euskara erabiltzen den.

– Federazioko hizkuntza-paisaian euskara erabiltzen den.

j) Erakunde eskatzaileak ez duela zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere, aitortzen duen zinpeko deklarazioa (V. eranskina). Legezko debeku hauen barne egongo dira ere 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunekoak azken xedapenen seigarrenean ezartzen dituenak, hots, sexu diskriminazioari buruzkoak.

k) Txapelketa ofizial propioen egutegia, Federazioko idazkariak sinatua eta presidenteak ontzat emana, Batzar Nagusiak zein egunetan onartu duen adierazita.

4. artikulua.– Diru-zuzkidura.

2013ko ekitaldirako agindu honetan arautzen diren laguntzak finantzatzeko bideratu den aurrekontu-zuzkidura bi milioi, hirurehun eta berrogeita hamar mila (2.350.000) eurokoa da.

5. artikulua.– Laguntzak kuantifikatzeko irizpideak

Segidan zehazten diren zenbatekoen batuketak esango du honako agindu honen deialdian parte hartuko duten federazioei zenbateko diru-laguntza emango zaien:

1.– Euskadiko kirol-federazioen 2012ko kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia arautzen duen Kulturako sailburuaren 2012ko maiatzaren 8ko Aginduaren babesean federazio bakoitzak eskuratu zuen diru-laguntzaren erdia (% 50).

2.– Aurreko puntuaren arabera federazio eskatzaile bakoitzarentzako diru-kopurua zehaztu ondoren, horien guztien batuketa agindu honetako 4. artikuluan zehaztutako kopuruari kenduko zaio eta gelditzen dena irizpide hauen arabera banatuko da:

a) Kirol-egitasmoa (puntuen % 75).

Ondoko hauek hartuko dira kontuan kirol-egitasmoaren interesa balioesteko:

– Federazioak antolatutako kirol-lehiaketa ofizialak.

– Kirol-prestakuntzako jarduerak.

– Zuzendari teknikorik dagoen.

– Parte-hartzera bideratutako kirolen inguruan federazioak antolatutako jarduerak (jolas, aisia eta osasunerako kirola).

– Kirol-selekzioek burututako jarduerak.

– Kirol-mota bertokoa den.

b) Lizentzia federatua duten kirolarien kopurua (puntuen % 5).

c) Euskararen erabilera (puntuen % 10). Puntu bana emango zaie euskaraz osoki egindako ondorengo ekintzei, eta puntu erdia euskaraz partez egindako ekintza bakoitzari:

– Euskaraz emandako prestakuntza-ikastaroak.

– Euskararen erabilera federazioen dokumentu eta argitalpenetan.

– Euskarazko weborririk duen.

– Jendeari harrera euskaraz egiten zaion.

– Federazioaren kanpo-harremanetan euskara erabiltzen den.

– Federazioko kideekin euskara erabiltzen den.

– Federazioko hizkuntza-paisaian euskara erabiltzen den.

d) Autofinantzaketa-maila (puntuen % 5), honako banaketa honen arabera:

% 0,00 - % 49,99: 0 puntu.

% 50,00 - % 74,99: 2 puntu.

% 75etik gora: 5 puntu.

e) Goi-mailako kirolarien kopurua, Kirol Kontseilu Gorenak edo Eusko Jaurlaritzak onartuak (puntuen % 5), honako banaketa honen arabera:

Kirolari kop.	Puntuak
1-3	2
4-6	4
6tik gora	5

3.– Aurreko idatz-zatian zehaztutako balorazioa egin ondoren, federazio bakoitzari dagokion gainontzeko diru-kopurua honela kalkulatuko da: federazio bakoitzak lortutako puntuazioak federazio guztien puntuazioarekiko erakusten duen portzentajea aplikatuko zaio artikulu honen 2. puntuan aipatzen den guztirako kopuruari.

6. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzeko prozedura

1.– Agindu honetako 3. artikuluan eskatzen den dokumentazio guztia eta eskabidea aurkeztu ondoren, Gazteria eta Kiroletako zuzendariak ebazpen bat emango du onuradun bakoitzak jasoko duen lehenengo aurrerapena zenbatekoa izango den zehazteko eta ordainketa egiteko, 287/2000 Dekretua, 2000ko abenduaren 26koa, euskal kirol federazioen kirol-programetarako dirulaguntzak ematea arautzen dueneko 5. artikuluan adierazitako ordainketa-arautegian xedatzen dena betez.

2.– Bigarren ordainketa aurreratua Kiroletako zuzendariaren ebazpen baten bidez egingo da, betiere aurreko urtean jasotako diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu eta onartu ondoren. Bigarren zati hori aipatutako urteko diru-laguntzaren % 25 izango da.

3.– Diru-laguntzaren gainerakoa, eskaera egin den urterako onartutako diru-laguntzaren guztia osatu artekoa, alegia, aurreratutako ordainketetan emandako zenbatekoak justifikatu ondoren likidatuko da.

7. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

1.– Diru-laguntzaren bat jaso duten federazioek diru hori agindu honetan eta diru-laguntza emateko ebazpenean zehaztutako helburuetarako erabili dela erakutsi behar dute 2014ko otsailaren 15a baino lehenago, honako dokumentazio hau aurkeztuz:

a) 2013. aurrekontuaren likidazioa, Batzar Nagusiak onartua, VII. eranskineko ereduaren arabera.

b) Burututako kirol-proiektuari buruzko memoria zehatza. Horrekin batera, eskabidean zehaztutako jarduerak burutu direla erakusten duen dokumentazioa aurkeztu behar da.

c) Helburu berbererako beste diru-laguntzaren bat jaso bada eta deialdi honetarako eskaera aurkezteko unean horren berri ez bazuen, horien zerrenda.

d) Gastuaren justifikazioa.

Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak idatzitako jarraibideak jarraituz egingo da gastuaren justifikazioa. Horretarako jatorrizko fakturak edo Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak zein Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko lurralde-zerbitzuek konpultsatutako fotokopiak aurkeztu beharko dira, ebazpenean ezarritako baldintzen arabera, fakturen zenbatekoa emandako diru-laguntzaren bestekoa izango delarik.

e) Eskabidea egiterakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko konpromisoa aurkeztu duten federazioei dagokienez, konpromiso hori betetzen dela erakusten duten agirien aleak.

2.– Aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak dagokion likidazio-ebazpena emango du eta, hala badagokio, ordurako ordainduta dagoen diru-laguntzatik zein diru-kopuru itzuli behar den zehaztuko du itzulketa egiteko, eta, hori gertatuz gero, bi hilabeteko epea emango da, likidazio-ebazpena jasotzen den egunetik hasita 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen ezarritakoari jarraituz.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako diru-laguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonei deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Gazteria eta Kirol Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonek fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, deialdi honen xede berdinetarako bakarrik eta, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 16a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA
DIRU-LAGUNTZARAKO ESKABIDEA

EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN 2013KO KIROL-PROGRAMAK FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

FEDERAZIOAREN DATUAK
Izena edo izen soziala: .....
Euskal Herriko kirol-erakundeen erregistroko inskripzio-zenbakia: .....
Inskripzio-data: ……..……..…… IFZ zk.: .....
Helbidea: .....
Posta-kodea: ……..…..….. Herria: .....
Telefonoa.: ……..…..…… Faxa: .....
Posta elektronikoa (e-mail): .....

ORDAINKETARAKO BANKETXE/AURREZKI-KUTXAREN DATUAK	
Banketxea edo aurrezki kutxa	☐ ☐ ☐ ☐
Agentzia.	☐ ☐ ☐ ☐
K.D.	☐ ☐
Kontu-zk.	☐ ☐☐ ☐☐ ☐☐ ☐☐ ☐

FEDERAZIOAREN LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK
Izen-deiturak:: .....
..... NAN: .....
Helbidea: .....
Posta-kodea: ..... Herria: .....
Telefonoa.: ..... Faxa: .....
Posta elektronikoa (e-mail): .....

(e)n, 2013ko ren .....(e)(a)n

Izen-deiturak: NAN

Izenpea

Eskabidea izenpetzen duenak eta eskaera egiten duenak pertsona bera izan beharko du, eta entitatearen legezko ordezkaria izan.

ENTITATE ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

a) Eskabide-inprimakia (I. eranskina).

a.1.– Federazioaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiria, ahalordetze-agiriaren bidez edo, hala badagokio, dagokion organoak egindako egiaztagiriaren bidez.

b) Erakundearen 2013ko ekitaldiko aurrekontua, batzar nagusiak onartua, VI. eranskinean ezarritako kontabilitate-ereduaren arabera.

c) Federazioaren IFZren fotokopia.

d) Zerga eta Segurantza Sozialeko kontuetan bere betebehar guztiak ordainduta dituela egiaztatzen duten agiri eguneratuak.

e) Erakunde onuradunak eskatu dituen edo ustez jasoko dituen beste laguntza batzuen zerrenda, emango duen erakunde publiko zein pribatuaren izena eta diru-laguntzarako eskabideen egoera aipatuta: ezetsia, erantzunaren zain, emana eta diru-kopurua. Horrelakorik egon ezean, diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako egitarauetarako beste inongo laguntzarik ez dela eskatu egiaztatzeko jakinarazpena.

f) Kirol-proiektua azaltzen duen memoria (II. eranskina).

g) Federazioen estamentu-liburua, Kirol Erakundeen Erregistroak legeztatua, eta federazioaren idazkariak lehendakariaren oniritziarekin egindako egiaztagiria, 2012ko abenduaren 31n federazioak zituen kirolari federatuen kopurua adierazten duena (III. eranskina).
h) 2012ko abenduaren 31n, federazioak afiliatuen artean zituen goi-mailako kirolarien zerrenda, Kirol Kontseilu Gorenak edo Eusko Jaurlaritzak onartuak.

i) Federazioak euskara zenbateraino erabiltzen duen adierazten duen memoria (IV. eranskina).

j) Erakunde eskatzaileak ez duela zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik aitortzen duen zinpeko deklarazioa (V. eranskina).

k) Txapelketa ofizial propioen egutegia, Federazioko idazkariak sinatua eta presidenteak ontzat emana, Batzar Nagusiak zein egunetan onartu duen adierazita.

II. ERANSKINA

KIROL-PROIEKTUA AZALTZEN DUEN TXOSTENA, DEIALDIA EGITEN DUEN AGINDUAREN 3.F) ART.

LEHIAKETA OFIZIALAK

FEDERAZIOAN AFILIATUTAKO KLUBEN KOPURUA, GUZTIRA:.....

Lehiaketa ofizialaren izena	Espezialitatea edo disciplina	Kategoria	Parte hartzen duten kluben kopurua	%	Parte hartzen duten kirolarien kopurua

Idazkaria ..... Presidentearen O.E .....

KIROL-PRESTAKUNTZAKO JARDUERAK		
Jardueraren izena	Ordu-kopurua	Partaideen kopurua

ZUZENDARI TEKNIKORIK BADAGO / EXISTENCIA DE DIRECTOR/A TÉCNICO/A		
Titulazioa	Dedikazioa ordutan	Federazioarekiko lotura

Idazkaria ..... Presidentearen O.E .....

PARTE HARTZERA BIDERATUTAKO KIROL-JARDUERAK (JOLAS, AISIA ETA OSASUNERAKO KIROLA)

Idazkaria ..... Presidentearen O.E .....

SELEKZIOEN JARDUERAK		
Jardueraren izena	Espezialitate edo diziplina	Kategoria

Idazkaria ..... Presidentearen O.E .....

III. ERANSKINA

2012KO ABENDUAREN 31N FEDERAZIO-LIZENTZIA DUTEN KIROLARIEN KOPURUA

Jaioturtea	Federazio-lizentzia duten kirolarien kopurua	
	Emakumeak	Gizonak
1993 eta aurrekoak		
1994-1995		
1996-1997		
1998-1999		
2000 eta ondorengoak		
Guztira		

…….(en), 2013ko ……ren …… (e) (a)n

Idazkaria ..... Presidentearen O.E .....

Oharra: Eskolako Kirolari buruzko 125/2008 uztailaren 1eko Dekretuaren arabera, III. Eranskinean bakarrik asartu ahal izango dira 1997. urtetik aurrera jaiotakoak, dagokien Foru Aldundiaren baimena Kirol Erakundeen Erregistroan aurkeztu bada. 1998. urtean jaiotakoak, berriz, eranskinean kontatu ahal izango dira baldin eta 2011/2012 eskola kirola programa hasi ondoren (2011ko iraila) lortu badute lizentzia edo aipatutako programa hasi aurretik lortu badute (hau da, 2011ko iraila baino lehenago) eta aipatutako baimena aurkeztu badute .

IV. ERANSKINA

EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO AZALPEN-MEMORIA (DEIALDIA EGITEN DUEN AGINDUAREN 3.I ART.)

Euskal federazioaren izena: .....

1.– Euskaraz emandako prestakuntza-ikastaroak

A) Bat ere ez

B) Bat edo beste Zeintzuk: .....
.....

C) Denak Zeintzuk: .....
.....

2.– Euskararen erabilera federazioaren agiri eta argitalpenetan Bai ☐ Ez ☐

3.– Weborria euskaraz Bai ☐ Ez ☐ Zati batzuk ☐

4.– Jendeari harrera euskaraz egitea Bai ☐ Ez ☐

5.– Euskararen erabilera federazioaren kanpo-harremanetan Erakundeekin Bai ☐ Ez ☐

Komunikabideekin
Bai ☐ Ez ☐

Beste batzuk: zeintzuk
.....
.....
.....

6.– Euskararen erabilera federazioko kideekin

Lurralde-federazioekin
Bai ☐ Ez ☐

Klubekin
Bai ☐ Ez ☐

Batzarretan
Bai ☐ Ez ☐

Beste batzuk: zeintzuk
.....
.....
.....

7.– Euskararen erabilera federazioaren hizkuntza-pasaian (errotulu, postontzi, kartel eta abarretan)

Bai ☐ Ez ☐ Partez ☐

Idazkaria .....Presidentearen O.E. .....

V. ERANSKINA

ZINPEKO DEKLARAZIOA

IZEN ABIZENAK: .....

NAN: .....

NIRE ARDURAPEAN, ONDORENGOA ADIERAZTEN DUT

Ordezkatzen dudan erakundeak ez duela zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik, Legezko debeku hauen barne egongo dira ere 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunekoak azken xedapenen seigarrenean ezartzen dituenak, hots, sexu diskriminazioari buruzkoak.

Izenpea

Eskabidea izenpetzen duenak eta eskaera egiten duenak pertsona bera izan beharko du, eta entitatearen legezko ordezkaria izan.

VI. ERANSKINA

ERAKUNDAREN 2013KO EKITALDIKO AURREKONTUA

GASTUEN AURREKONTUA		
1. PROGRAMA. LANGILEEN GASTUAK		
Kodea		
1.1	Nominak	
1.2	Gizarte Segurantzaren kuotak	
1.3	PFEZaren atxikipenak	
1.4	Bidaia eta dieta gastuak (langileak, zuzendariak)	
1.5	Beste gastu batzuk	
	GUZTIRA	
2. PROGRAMA. FUNTZIONAMENDU GASTUAK		
Kodea		
2.1	Telefonoa eta Internet	
2.2	Webgunearen mantzentze-lanak	
2.3	Hornidurak (ura, argia, gasa…)	
2.4	Bulegoko materiala	
2.5	Posta, mezulari, fotokopia gastuak	
2.6	Konponketak eta kontserbazioa	
2.7	Garbiketa	
2.8	Itzulpenak	
2.9	Kanpo-zerbitzuak (juridikoa, laborala)	
2.10	Errentamendua	
2.11	Aseguruak (tokikoak, lehiaketak antolatzea eta erantzukizun zibila)	
2.12	Ibilgetu materiagabea amortizatzea	
2.13	Ibilgetu materiala amortizatzea	
2.14	Beste gastu batzuk	
	GUZTIRA	
PROGRAMA 3 FINANTZA GASTUAK		
Kodea		
3.1	Banku komisioak	
3.2	Kreditu-interesak	
	GUZTIRA	

PROGRAMA 4 LIZENTZIAK		
Código		
4.1	Kirol-asegurua	
4.2	Lizentziak homologatzea	
4.3	Lurralde-federazioei lizentzia-kuoten zati bat ordaintzea	
4.4	Beste batzuk	
	GUZTIRA	
5. PROGRAMA. SUSTAPEN, PUBLIZITATE ETA HARREMAN PUBLIKOETARAKO MATERIALAK		
Kodea		
5.1	Sustapena	
5.2	Merchandising	
5.3	Biltzar eta zuzendaritza-batzarrak antolatzea, bidaiatzea eta bertan parte hartzea	
	GUZTIRA	
6. PROGRAMA. KIROL PROGRAMAREN JARDUERAK		
Kodea		
6.1	EUSKADIKO TXAPELKETA	
6.1.1	Emakumezkoena	
6.1.1.1	Garaikurrak eta dominak	
6.1.1.2	Egikaritze teknikoa	
6.1.1.3	Laguntza medikoa	
6.1.1.4	Laguntza teknikoa eta zuzendaritza	
6.1.1.5	Joan-etorriak	
6.1.1.6	Mantenua	
6.1.1.7	Beste gastu batzuk	
	GUZTIRA	
6.1.2	Gizonezkoena	
6.1.2.1	Garaikurrak eta dominak	
6.1.2.2	Egikaritze teknikoa	
6.1.2.3	Laguntza medikoa	
6.1.2.4	Laguntza teknikoa eta zuzendaritza	
6.1.2.5	Joan-etorriak	
6.1.2.6	Mantenua	
6.1.2.7	Beste gastu batzuk	
	GUZTIRA	
6.2	ESPAINIAKO TXAPELKETA	
6.2.1	Emakumezkoena	

6.2.1.1	Joan-etorriak	
6.2.1.2	Ostatua eta mantenua	
6.2.1.3	Laguntza medikoa	
6.2.1.4	Laguntza teknikoa	
6.2.1.5	Beste gastu batzuk	
	GUZTIRA	
6.2.2	Gizonezkoena	
6.2.2.1	Joan-etorriak	
6.2.2.2	Ostatua eta mantenua	
6.2.2.3	Laguntza medikoa	
6.2.2.4	Laguntza teknikoa	
6.2.2.5	Beste gastu batzuk	
	GUZTIRA	
6.3	EUSKAL SELEKZIOEN KONTZENTRAZIOA	
6.3.1	Emakumezkoena	
6.3.1.1	Joan-etorriak	
6.3.1.2	Mantenua	
6.3.1.3	Laguntza medikoa	
6.3.1.4	Laguntza teknikoa	
6.3.1.5	Beste gastu batzuk	
	GUZTIRA	
6.3.2	Gizonezkoena	
6.3.2.1	Joan-etorriak	
6.3.2.2	Mantenua	
6.3.2.3	Laguntza medikoa	
6.3.2.4	Laguntza teknikoa	
6.3.2.5	Beste gastu batzuk	
	GUZTIRA	
7. PROGRAMA. PRESTAKUNTZA		
Kodea		
7.1	Prestakuntza ikastaroak: epaileak eta arbitroak	
7.2	Prestakuntza ikastaroak: entrenatzaileak	
7.3	Prestakuntza ikastaroak: monitoreak	
7.4	Beste batzuk	
	GUZTIRA	

8. PROGRAMA. HIRUGARRENEN ALDEKO TRANSFERENTZIAK		
Kodea		
8.1	Kirolariei (sariak)	
8.2	Lurralde-federazioei	
8.3	Klubei	
8.4	Beste batzuei	
	GUZTIRA	
GASTUEN AURREKONTUA, GUZTIRA (1-8 programak)		

DIRU-SARREREN AURREKONTUA

1. PROGRAMA. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BABESAK		
Kodea		
1.1	Kultura Sailaren urteko programa	
1.2	Beste laguntza publiko batzuk	
1.3	Babesak	
	GUZTIRA	

2. PROGRAMA. LIZENTZIAK		
Kodea		
2.1	Kirolarien lizentziak	
2.2	Kluben lizentziak	
	GUZTIRA	

3. PROGRAMA. LEHIAKETAK ETA TXAPELKETAK		
Kodea		
3.1	Inskripzioak	
3.2	Isunak	
3.3	Sarrera-txartelak	
3.4	Beste batzuk	
	GUZTIRA	

4. PROGRAMA. PRESTAKUNTZA		
Kodea		
4.1	Inskripzioak	
4.2	Beste batzuk	
	GUZTIRA	

5. PROGRAMA. FINANTZA SARRERAK		
Kodea		
5.1	Finantza-sarrerak	
	GUZTIRA	
6. PROGRAMA. BESTE SARRERA BATZUK		
Kodea		
6.1	Merchandising	
6.2	Irudi-eskubideak	
6.3	Beste batzuk	
	GUZTIRA	
SARREREN AURREKONTUA, GUZTIRA (1-6 programak)		

VII. ERANSKINA

2013. URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

GASTU-AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA				
1. PROGRAMA LANGILEEN GASTUAK				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
1.1	Nominak			
1.2	Gizarte Segurantzaren kuota			
1.3	PFEZaren atxikipenak			
1.4	Bidaia eta dieta gastuak (langileak, zuzendariak)			
1.5	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			
2. PROGRAMA. FUNTZIONAMENDU GASTUAK				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
2.1	Telefonoa eta Internet			
2.2	Webgunearen mantentze-lanak			
2.3	Hornidurak (ura, argia, gasa…)			
2.4	Bulegoko materiala			
2.5	Posta, mezulari, fotokopia gastuak			
2.6	Konponketak eta kontserbazioa			
2.7	Garbiketa			
2.8	Itzulpenak			
2.9	Kanpo-zerbitzuak (juridikoa, laborala)			
2.10	Errentamendua			
2.11	Aseguruak (tokikoak, lehiaketak antolatzea eta erantzukizun zibila)			
2.12	Ibilgetu materiagabea amortizatzea			
2.13	Ibilgetu materiala amortizatzea			
2.14	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			

3. PROGRAMA. FINANTZA GASTUAK				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
3.1	Banku-komisioak			
3.2	Kreditu-interesak			
	GUZTIRA			
4. PROGRAMA. LIZENTZIAK				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
4.1	Kirol-asegurua			
4.2	Lizentziak homologatzea			
4.3	Lurralde-federazioei lizentzia-kuoten zati bat ordaintzea			
4.4	Beste batzuk			
	GUZTIRA			
5. PROGRAMA. SUSTAPEN, PUBLIZITATE ETA HARREMAN PUBLIKOETARAKO MATERIALAK				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
5.1	Sustapena			
5.2	Merchandising			
5.3	Biltzar eta zuzendaritza-batzarrak antolatzea, bidaiatzea eta bertan parte hartzea			
	GUZTIRA			
6. PROGRAMA. KIROL PROGRAMAREN JARDUERAK				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
6.1	EUSKADIKO TXAPELKETA			
6.1.1	Emakumezkoena			
6.1.1.1	Garaikurrak eta dominak			
6.1.1.2	Egikaritze teknikoa			
6.1.1.3	Laguntza medikoa			
6.1.1.4	Laguntza teknikoa eta zuzendaritza			
6.1.1.5	Joan-etorriak			
6.1.1.6	Mantenua			
6.1.1.7	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			

6.1.2	Gizonezkoena			
6.1.2.1	Garaikurrak eta dominak			
6.1.2.2	Egikaritze teknikoa			
6.1.2.3	Laguntza medikoa			
6.1.2.4	Laguntza teknikoa eta zuzendaritza			
6.1.2.5	Joan-etorriak			
6.1.2.6	Mantenua			
6.1.2.7	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			
6.2	ESPAINIAKO TXAPELKETA			
6.2.1	Emakumezkoena			
6.2.1.1	Joan-etorriak			
6.2.1.2	Ostatua eta mantenua			
6.2.1.3	Laguntza medikoa			
6.2.1.4	Laguntza teknikoa			
6.2.1.5	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			
6.2.2	Gizonezkoena			
6.2.2.1	Joan-etorriak			
6.2.2.2	Ostatua eta mantenua			
6.2.2.3	Laguntza medikoa			
6.2.2.4	Laguntza teknikoa			
6.2.2.5	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			
6.3	EUSKAL SELEKZIOEN KONTZENTRAZIOAK			
6.3.1	Emakumezkoena			
6.3.1.1	Joan-etorriak			
6.3.1.2	Mantenua			
6.3.1.3	Laguntza medikoa			
6.3.1.4	Laguntza teknikoa			
6.3.1.5	Beste gastu batzuk			
6.3.2	Gizonezkoena			
6.3.2.1	Joan-etorriak			
6.3.2.2	Mantenua			
6.3.2.3	Laguntza medikoa			
6.3.2.4	Laguntza teknikoa			
6.3.2.5	Beste gastu batzuk			
	GUZTIRA			

7. PROGRAMA. PRESTAKUNTZA				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
7.1	Prestakuntza ikastaroak: epaileak eta arbitroak			
7.2	Prestakuntza ikastaroak: entrenatzaileak			
7.3	Prestakuntza ikastaroak: monitoreak			
7.4	Beste batzuk			
	GUZTIRA			

8. PROGRAMA. HIRUGARRENEN ALDEKO TRANSFERENTZIAK				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
8.1	Kirolariei (sariak)			
8.2	Lurralde-federazioei			
8.3	Klubei			
8.4	Beste batzuei			
	GUZTIRA			
GASTU-AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA, GUZTIRA (1-8 programak)				

DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

1. PROGRAMA. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BABESAK				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
1.1	Kultura Sailaren urteko programa			
1.2	Beste laguntza publiko batzuk			
1.3	Babesak			
	GUZTIRA			

2. PROGRAMA. LIZENTZIAK				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
2.1	Kirolarien lizentziak			
2.2	Kluben lizentziak			
	GUZTIRA			

3. PROGRAMA. LEHIAKETAK ETA TXAPELKETAK				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
3.1	Inskripzioak			
3.2	Isunak			
3.3	Sarrera-txartelak			
3.4	Beste batzuk			
	GUZTIRA			
4. PROGRAMA. PRESTAKUNTZA				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
4.1	Inskripzioak			
4.2	Beste batzuk			
	GUZTIRA			
5. PROGRAMA. FINANTZA SARRERAK				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
5.1	Finantza-sarrerak			
GUZTIRA				
6. PROGRAMA. BESTE SARRERA BATZUK				
Kodea		Aurreikusitakoa (VI. eranskinean jarritakoa)	Egindakoa	Justifikatua
6.1	Merchandising			
6.2	Irudi-eskubideak			
6.3	Beste batzuk			
	GUZTIRA			
DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA, GUZTIRA (1-6 programak)				